


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko ABUZTUA

Euskal AEko industri jarduera %1,9 hazi zen 2003ko abuztuan

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetako Industri Produkzioaren Indizea %0,9 igo da, iazko aldi bereko batez bestekoaren aldean.

2003ko abuztuan, %1,9 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, lan-egutegiaren balio absolutuetan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko hazkundera %5,5era iritsi zen, joan zen abuztuak iazkoak baino lanegun bat gutxiago izan zuelako. Urtearen lehenengo zortzi hilabeteetarako hazkunde-tasa metatua, iazko aldi beraren aldean, %0,9 hazi da balio absolutuetan, eta %1,0 lan-egutegiaren balio homogeneotan. Aipatzekoa da 2003an industri produkzioan ematen ari den susperraldia; hazkunde positiboak eta gero eta altuagoak izan ziren lehenengo bi hiruhilekoetan, eta %2,0ra iritsi zen uztaila eta abuztua batuta. Hori guztia, balio homogeneotan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(*) 2003ko uztail-abuztuko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2003ko abuztuan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolutotan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolioaren fintzea* (%59,6), *garraio-materiala* (%14,9), *kautxua eta plastikoa* (%3,4), *larruaren eta oinetakoen industria* (%2,9) eta *zurgintza* (%2,7) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-10,9), *ehungintza eta jantzigintza* (%-7,3), *ez-metalezko industria* (%-5,6), *material elektrikoa* (%-5,2), eta *papera, argitalpena eta arte grafikoak* (%-3,4) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko abuztuan, igo egin dira ekipo-ondasunen (%8,0) eta bitarteko ondasunen (%3,1) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da kontsumo-ondasunen (%-7,4) tasa.

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolioia fintzea* (%20,9), *ehungintza eta jantzigintza* (%6,8), *kautxua eta plastikoa* (%6,7), *garraio-materiala* (%3,1) eta *material elektrikoa* (%2,4) sektoreei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-13,7), *bestelako manufakturak* (%-5,4), *elikagai-industria* (%-2,2) eta *makineria* (%-1,2) arloek, batik bat.

Lehenengo zortzi hilabeteetako aldakuntza metatuek hazkundeak izan dituzte bitarteko ondasunetan (%1,7) eta ekipo-ondasunetan (%0,1), baina kontsumo-ondasunek %2,9ko jaitsiera izan dute.

Lurralde historikoka, abuztuko indize orokorrean, Arabako eta Bizkaiko urte arteko hazkundeak nabarmendu dira, %3,8 eta %4,9ko hazkundeekin, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, %3,6 urritu da indizea. Urteko lehenengo zortzi hilabeteetan, desberdintasunak txikiagoak dira: Bizkaiak eta Gipuzkoak %1,6 eta %0,7ko hazkunde metatuak izan dituzte, hurrenez hurren, eta Araban produkzioa apur bat jaitsi da (%0,1), aurreko urteko aldi beraren aldean. .

Taula: 2003ko ABUZTUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-abuztuko tasa metatua		2003ko urtarril-abuztuko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	1,9	5,5	-2,0	-1,2	0,9	1,0
Araba	3,8	8,1	-0,7	0,2	-0,1	0,0
Bizkaia	4,9	8,4	-1,8	-1,0	1,6	1,7
Gipuzkoa	-3,6	0,0	-2,9	-2,1	0,7	0,8
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	3,1	6,4	-1,4	-0,7	1,7	1,8
Kontsumo-ondasunak	-7,4	-3,9	1,0	2,0	-2,9	-2,9
Ekipo-ondasunak	8,0	13,4	-3,5	-2,7	0,1	0,2

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es